


## Zerbitzuen negozio zifrak okerrera egin zuen irailean

Zerbitzuen negozio zifra  
Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako informazioaren arabera, **EAEko zerbitzuen sektoreko negozio zifra %1,8 murriztu zen irailean, aurreko urteko hil beraren aldean.** Aitzitik, enpleguak, azken hilabeteetan bezala, bilakera positiboarekin jarraitu zuen, urte arteko %1,3ko igoerarekin.

## Industriaren negozio zifra %4,0 handitu zen

Industriaren negozio zifra  
Urte bakoitzeko iraila. Indizea



Iturria: INE.


**Aurtengo irailean, industriaren negozio zifra %4,0 igo zen aurreko urteko aldi beraren aldean, INEk berriki argitaratutako datuen arabera.** Igoera horri esker, aurtengo irailako indizea izan zen hilabete horretan inoiz lortu den handiena.



## Atzerritarren afiliazioak berriro egin du gora

### Atzerritarren afiliazioak

Balio absolutua




Iturria: Gizarte Segurantza.

Urrian, atzerritarren Gizarte Segurantzako afiliazioak %11,5 gehitu ziren aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, 92.315 afiliazio daude jada atzerriko nazionalitatea dutenen artean, eta hori da serie historiko osoko erregistrorik handiena.

## Hoteletako gaualdiek areagotzen jarraitzen dute

### Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko urria. Milakoak



Iturria: Eustat.

Urrian, EAEko hotel establezimenduetako gaualdiak %6,7 gehitu ziren. Guztira, 672.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, serie historiko osoko kopururik handiena urrian. Nabarmentzekoa da, beste behin ere, atzerritar asko etorri direla, Estatuko gainerrako herrialdeetatik etorritako pertsonen kopurua jaitsi zen bitartean.